



## KULTURA ETA ARTEAREN ALORREKO SORMEN LANETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTU ETA 2025EKO DEIALDIA EGITEA

### 1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Zumaia udalerrian kultura sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Dirulaguntza hauen xedea da artelanak egitera zuzendutako sorkuntza prozesu zehatzak garatu nahi dituzten zumaiar guztiei laguntzea, eta baita udalerri honi lotutako mota honetako proiektuak garatzeko interesa duten pertsonen laguntzea ere.

Sormeneko dirulaguntza hauek, 2024-2027 epealdiko Zumaia Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoaren IV. eranskinean jasota daude (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.). Helburua, sormeneko egitasmoak babestea eta kultur eskaintza ugaltzea da; beti ere Kultur sailaren xedeekin bat datozen neurrian.

Deialdi honek arautzen dituzten laguntzak Sormen lanak babesteko dira. Kultur sorkuntza bezala ulertuko da artistaren imajinaziotik eratorritako obra bat: literatura, antzerkia edo antzerki testuak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, arte plastikoak... Proiektu zehatzak babesteko xedea du deialdiak, eta baita beharrezko sormen prozesua ere.

Berdintasuna bermatuko da Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duenari jarraituta, zehazki, 28. artikuluan oinarrituta, kultura jardueren buruzkoa.

Dirulaguntzaren kontzeptu guztiak dirulaguntza izendatu eta 9 hilabeteren epean egin beharko dira.

### 2. artikulua. Araudi aplikagarria

Dirulaguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, deialdi honek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Deialdi honetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaia Udalak eta bere erakunde autonomoek dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.).
- 2024-2027 epealdiko Zumaia Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.).
- Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena.

### 3. artikulua. Zuzkidura eta aurrekontuko partida

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak aurrekontuko honako partidetatik emango dira: 1 0300.480.334.00.01 2025 (2273) Sormenerako laguntzak: 6.000€



#### **4. artikulua. Onuradunak**

Dirulaguntza hau kultura eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisiko edo taldeek eska dezakete.

Sortzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke. Taldeetan aurkeztuz gero, pertsona bakarra izendatu beharko da taldeko ordezkari bezala. Horrez gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du dirulaguntzak eskatzeko datan 18 urteko adina betea izatea.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Zumaia Udaleko dirulaguntzak emateko ordenantzan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

#### **5. artikulua. Baztertuak**

Ez dira dirulaguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:

- Indarrean den araudiari jarraikiz, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezingo dituzte dirulaguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.
- Zigor edo administrazio arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege debeku baten eraginpean dauden pertsonak, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duenaren arabera sexu diskriminazioan erori izanagatik lege debekuak barne, ezin izango dute agindu honetan araututako dirulaguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako aldiaren.
- Ez da dirulaguntzarik, ezta inolako baliabiderik ez funts publikorik emango, zuzenean zein zeharka, LGBTIfobia gauzatzen, bultzatzen edo sustatzen duen inongo pertsona juridikori, leheneratzeko terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82.artikuluak xedatutakoaren arabera.
- Beren izaera edo helburua kontuan izanik, beste Udalaren sail edo erakunde autonomoren baten programetan lagundu beharrekoak. Nolanahi ere, horrelakoetan, dagokion sail edo erakundeari helaraziko zaizkio eskaera horiek, eta horren berri emango zaio interesdunari.

#### **6. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduerak**

Deialdi honek babestuko dituzten sorkuntza eremuak kultura, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argazkia, antzerkia, literatura, musika, dantza eta koreografia edo diziplina anitzen arteko lanek osatuko dute. Betiere, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 31.art., Dirulaguntzen Lege Orokorren, xedatzen duenarekin bat etorrituz gero, hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duen jarduera sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia badute.

Deialdia argitaratzean eskuratu ahal izango dira eremu bakoitzeko baldintza zehatzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

#### **7. artikulua. Eskaerak aurkeztea**



Eskabideak aurkeztu daitezke , pertsona fisikoek aurrez aurre edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki:

Aurrez aurre Zumaiako Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Telematikoki, Udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez ([www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus)).

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### **8. artikulua. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak**

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Zumaiako Udalak, NISAren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarri, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaiako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Interesdunaren edo interesdunen NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Zumaiako Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Ezin bada datuen artekaritza plataformaren bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoaren bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Interesdunek erabili ahal izango dute haien datu pertsonalak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea, berariaz adierazita. Interesatuak erabiltzen badu bere datu pertsonalak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea, beharrezko dokumentazioa erantsi beharko du, eta aurkeztu ez badu ulertu ahal izango da eskabidean atzera egiten duela.

Eskabidearekin (deialdiko I. eranskina) batera, bestelako agiri hauek aurkeztu beharko dira:



1. Dirulaguntzaren eskaera normalizatua behar bezala beteta.
2. Jardueraren memoria:
  - Egitasmoaren berri ematen duen memoria: laburpena, eta hala badagokio, parte hartuko dutenen zerrenda, irudiak edo bestelakoak.
  - Eskatzaile(ar)en curriculum vitae, betiere kultur munduari lotutakoa.
  - Memorian, pertsonen inguruko datuak jasoz gero, sexuaren arabera adierazi beharko dira.
3. Diruz laguntzeko aurkeztu den programari dagokion gastuen eta diru sarreraren aurrekontua. (II. eranskina).
4. Elkarleen kasuan, Eusko Jaurlaritzako elkarleen eta entitateen erregistroko inskripzio ziurtagiria.
5. Beste instituzio eta erakundeetan egin diren dirulaguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren dirulaguntzena. (III. eranskina).
6. Zinpeko aitortzea, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigorritu ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legeko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatik diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak arautzen duen ildotik.
7. Elkarle edo entitatea izatearen kasuan, urteko gastuen eta diru sarreraren aurrekontua.
8. Hirugarrenari alta emateko datua. (VI. eranskina)
9. Proiektuan emakume eta gizonen ikuspuntua noraino kontuan hartzen den zehaztu beharko da. (IV. eranskina)
10. Euskararen tratamendua jardueraren hedapenean eta elkarlearen erabileran, hala dagokionean. (V. eranskina)
11. Udaleko elkarleen erregistroan izena eman dutenek ez dituzte aurkeztu beharko 4 eta 8. puntuetan eskatzen diren agiriak.

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez baditu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliodun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Organo izapidegileak edozein unetan beharrezkoa ikusten duen jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria jaso ahal izango du hobeto egiaztatzeko betetzen direla dirulaguntza hauek arautzen dituzten arauetan eskatutako baldintzak.

## **9. artikulua. Akatsak zuzentzea**

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten. (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua).



Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da eta prozedura artxibatuko da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

#### **10. artikulua. Dirulaguntzak adjudikatzeko balorazio irizpideak**

Dirulaguntzak emateko ondorengo pausoak eta alderdiak hartuko dira kontuan:

LEHEN FASEA: 10 puntu

Udalerriarekiko lotura: eskatzaileak/ek eta proiektuak Zumaia udalerriarekin duten lotura, guztizko puntuazioaren % 10. Guztizko puntuazioaren % 5era iristen ez diren eskaerak deialditik kanpora geratuko dira.

BIGARREN FASEA 80 puntu

- Proiektuaren kalitate artistikoa (40 puntu).
- Aurrekontua, finantzazio plana eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (10 puntu).
- Bestelako puntuak:
  - a. Euskara: sorkuntza euskaraz izatea, hizkuntzari ekarpena...(10 puntu).
  - b. Proiektuan genero ikuspegia txertatuta egotea (10 puntu).
- Herrian egingo den aurkezpen edo lanketa (aurkezpen, emanaldi, erakusketa, tailer...) eta Zumaia at izango duen ibilbide proposamena. (10 puntu)

HIRUGARREN FASEA: 10 puntu

Curriculum Vitaea (10 puntu)

#### **11. artikulua. Instrukzioa**

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Kulturako arduraduna.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea Kultura Sailaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Kultura Sailak dirulaguntza eskaerei buruz egingo duen aurre ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Kulturako arduradunak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egingo du aipatu balorazio irizpideen arabera.

Jasotako proposamenen arabera Kultura sailak balorazio mahai bat osatuko du: Udalaren Kultura Batzordeko hiru kidek eta kultur arloan arituak diren hiru aholkularik. Erabakia hartzean berdinketa suertatuko balitz, Kultura Batzordeko buruak izango du kalitatezko botoa.



Eskaerak ebaluatu ondoren, eta Kultura Batzordean informatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

## **12. artikulua. Ebazpena**

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio ebaztea, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunez ezetsitatzat jo ahal izango dute.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **13. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa**

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Ordainketa 2 zatitan egingo da sortzaile edo erakunde onuradunaren titulartasuneko kontu batera banku transferentzia bidez:

- 1. ordainketa: onartutako dirulaguntzaren % 70 ebazpena jakinarazten denean.
- 2. ordainketa: gainerako % 30 dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru zenbatekoen ordainketa aurreratutak egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikulua egiten duen arautzearen arabera egingo dira aurrerapen horiek. Horrez gain, udaleko dirulaguntzen ordenantza arautzaileak dioena izango da kontuan.

## **14. artikulua. Justifikazioa**

Behin diruz lagundutako jarduera amaituta, ekintzen memoria eta frogagiriak aurkeztuko dira.

Ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko:

- Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria xehakaturak, euskaraz edo ele bietan. Bertan adierazi beharko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.
- Adjudikazioaren ebazpena jasotzen duenetik, onuradunak gehienez ere bederatzi hilabete izango ditu sortze lana entregatzeko, paperezko bertsioan nahiz euskarri informatikoan, PDF bertsioan.
- Diruz lagundutako sormen lana Jabetza Intelektualeko Erregistroan sartu izanaren agiria.



- Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

### **15. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntza emanez gero, pertsona edo entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

— Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua garatzea eta deialdi honek erabakitako moduan arazoitzea.

— Administrazioak burutu beharreko egiaztatze jarduerak eta Udaleko kontu hartzailtzak egin beharreko finantzen kontrolak erraztea.

— Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari. Jasotako laguntzen guztizko zenbatekoa inoiz ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

— Dirulaguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera bat aldatuz gero, aldaketa horren berri ematea.

— Erakunde emailearen ardura duen talde teknikoari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo dirulaguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira.

— Diruz lagunduko diren jarduerak Zumaia Udalak indarrean dituen euskara eta berdintasun irizpideak betetzea.

### **16. artikulua. Publizitatea**

Deialdi honen baitan emandako dirulaguntzen onuradunek jarduerak iragartzeko erabiltzen dituzten euskarri guztiak euskaraz edo ele bitan (euskara lehenetsita) izango dira.

Onuradunek adierazi egin behar dute beren egitarauak edo jardunak Zumaia Udalaren dirulaguntza jaso duela: beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen dituzten kartel, egitarau, informazio eta hedabide guztietan.

### **17. artikulua. Dirulaguntza itzultzea**

Dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze interesa itzuli beharko da, Zumaia Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza 25. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.

### **18. artikulua. Deialdi honen interpretazioa**

Deialdi honen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea.